

Irungo Udalarentzat oso albiste positiboa da Eusko Jaurlaritzak laguntza ematea Aduana birgaitzeko lanetarako

Eusko Jaurlaritzak iragari duen 5 milioi euro bideratuko dituela Irungo Aduana zaharra birgaitzeko, 2022-2024 aldirako Gasteizko gobernuaren Lurralde Plangintzako Sailak hiri-eremuak berroneratzeko baloratu diren proiektuen artean.

Urrats hau burdinbide inguruko espazioa berrantzoatzeko une ezin garrantzitsuago batean dator, ate-joka baitugu Via Irunen lehen fasearen plan orokorraren aldaketaren hasierako onspena. Gainera, ADIFen geltoki berriaren proiektua ere zerumugan dago.

Ildo horretan, Irungo udalak albiste ontzat jo du, «albiste bikaina» da Aduana zaharra birgaitzeko 5 milioi euroko laguntza hori izatea. «Horrela, Eusko Jaurlaritza eraikinak duen garrantzia onartzen ari da eta, adli berean, argi geratzen da Via Irunek Aduana kalearen eta Pio XII.aren ingurua nabarmen hobetuko dituela, berdeguneekin, ekipamenduekin eta hirigintzarekin».

Eraikinak ia 10.000 m2 dauzka eta Estatua da jabea, baina Udalak denbora bat darama lanean higiezin hori eskuratzeko.